

Deba eta Zumaia arteko  
itsasertzeko Natura Baliabideak  
Antolatzekeo Plana  
Plan de Ordenación de los  
Recursos Naturales del tramo  
litoral Deba-Zumaia



biodibertsitatea  
eta paisala  
BIODIVERSIDAD Y  
PAISAJE

2009

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

 **ingurumena.net**



INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO  
AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL  
TERRITORIO

Edukia	Contenido	
<b>1. DESKRIBAPENA</b>	<b>1. ASPECTOS DESCRIPTIVOS</b>	<b>1</b>
1.1. ARRAZOIKETA	1.1. JUSTIFICACIÓN	1
1.2. XEDAPEN OROKORRAK ETA AURREKARIAK	1.2. DISPOSICIONES GENERALES Y ANTECEDENTES	3
1.2.1. Izaera	1.2.1. Naturaleza	3
1.2.2. Aplikazio-Esparrua	1.2.2. Ámbito de aplicación	3
1.2.3. Helburu orokorrak	1.2.3. Objetivos genéricos	3
1.2.4. Indarraldia eta berrikuspenerako baldintzatzaileak	1.2.4. Vigencia y condicionantes de revisión	4
1.2.5. Eremuaren kudeaketa	1.2.5. Gestión del espacio	5
1.3. LURZORUAREN JABETZA ETA LEGEZKO ESKUBIDEAK	1.3. PROPIEDAD DEL SUELO Y DERECHOS LEGALES	5
1.4. EZAUGARRI FISIKO ETA BIOLOGIKOEN DESKRIBAPENA ETA INTERPRETAZIOA	1.4. DESCRIPCIÓN E INTERPRETACIÓN DE LAS CARACTERÍSTICAS FÍSICAS Y BIOLÓGICAS	6
1.4.1. Eskualdeko klima	1.4.1. Clima comarcal	7
1.4.2. Ozeanografia	1.4.2. Oceanografía	8
1.4.3. Geologia eta geomorfologia	1.4.3. Geología y geomorfología	9
1.4.4. Gainazaleko hidrologia	1.4.4. Hidrología superficial	13
1.4.5. Itsasertzeko eta itsasoko flora eta fauna	1.4.5. Flora y fauna del medio litoral y marino	15
1.4.6. Lehorreko ekosistemak eta landaredia	1.4.6. Ecosistemas y vegetación terrestre	24
1.4.7. Lehorreko fauna	1.4.7. Fauna terrestre	29
1.4.8. Paisaia	1.4.8. Paisaje	31
1.5. GIZARTE-INGURUNEAREN ETA GIZA ERABILERAREN DESKRIPZIOA ETA INTERPRETAZIOA	1.5. DESCRIPCIÓN E INTERPRETACIÓN DEL MEDIO SOCIAL Y DE LOS USOS HUMANOS	34
1.5.1. Aisia eta turismoa	1.5.1. Recreo y turismo	34
1.5.2. Nekazaritza eta abeltzaintza	1.5.2. Agricultura y ganadería	36
1.5.3. Ehiza eta arrantza profesionala	1.5.3. Caza y pesca profesional	36
1.5.4. Itsas arrantza	1.5.4. Pesca marítima	36



1.5.5. Bide-sarea eta eraikinak	1.5.5. Red viaria y edificaciones	49
1.5.6. Naturaren kontserbazioa eta interpretazioa	1.5.6. Conservación e interpretación de la naturaleza	50
1.5.7. Ikerketa geologikoak	1.5.7. Estudios geológicos	51
1.5.8. Kanpo-eraginak	1.5.8. Influencias exteriores	52
1.6. DESKRIBAPENERAKO MATERIAL GEHIGARRIA	1.6. MATERIAL DESCRIPTIVO ADICIONAL	53
<b>2. BALIABIDEEN, EKOSISTEMEN ETA PAISAIEN KONTSERBAZIO-EGOERA: DIAGNOSTIKOA ETA AURREIKUSPENA</b>	<b>2. ESTADO DE CONSERVACIÓN DE LOS RECURSOS, ECOSISTEMAS Y PAISAJES: DIAGNÓSTICO Y PREVISIÓN</b>	<b>54</b>
2.1. EREMUAREN EBALUAZIOA	2.1. EVALUACIÓN DEL ESPACIO	55
2.2. BALIO POTENTZIALA	2.2. VALOR POTENCIAL	58
2.3. FAKTORE MUGATZAILE EDO ALDARAZLEAK	2.3. FACTORES LIMITADORES O MODIFICADORES	59
<b>3. JARDUKETAREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK</b>	<b>3. OBJETIVOS Y ESTRATEGIAS DE ACTUACIÓN</b>	<b>61</b>
3.1. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK	3.1. CRITERIOS Y OBJETIVOS GENERALES	61
3.2. JARDUERA ESTRATEGIAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK	3.2. ESTRATEGIAS DE ACTUACIÓN Y OBJETIVOS ESPECÍFICOS	62
<b>4. ANTOLAMENDUA ETA ARAUDIA</b>	<b>4. ORDENACIÓN Y NORMATIVA</b>	<b>68</b>
4.1. ZONAKATZEA	4.1. ZONIFICACIÓN	68
4.2. ERABILEREN ETA JARDUERAK ARAUTZEKO HELBURUAK, JARRAIBIDEAK ETA ARAUAK, ZONAKA	4.2. OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS DE REGULACIÓN DE USOS Y ACTIVIDADES POR ZONAS	69
4.2.1. Erreserba Zona	4.2.1. Zona de Reserva	69
4.2.2. Erabilera Bereziko Zona	4.2.2. Zona de Uso Especial	72
4.2.3. Itsas Babeseko Zona	4.2.3. Zona de Protección Marina	74
4.2.4. Landa Paisaiaren Babeseko Zona	4.2.4. Zona de Protección del Paisaje Rural	76
4.2.5. Ekosistemak Hobetzeko Zona	4.2.5. Zona de Mejora de Ecosistemas	79
4.2.6. Lehengoratu Beharreko Zona Narriatua	4.2.6. Zona Degradada a Recuperar	80



4.2.7. Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zona eta Landazabala	4.2.7. Zona Agroganadera y Campiña	81
4.2.8. Ibilguen Babeserako Gainjarritako Baldintzatzaileak	4.2.8. Condicionante Superpuesto de Protección de Cauces	83
4.2.9. Azpiegituren Zorpenerako Gainjarritako Baldintzatzailea	4.2.9. Condicionante Superpuesto de Servidumbre de Infraestructuras	84
4.2.10. Santa Katalina eta Talaimendiko Sistema Orokorren Gainjarritako Baldintzatzailea	4.2.10. Condicionante Superpuesto de los Sistemas Generales de Santa Catalina y Talaimendi	85
4.2.11. Lurralde-eredua	4.2.11. Modelo territorial	86
4.3. BALIABIDEEN BABESERAKO HELBURU, JARRAIBIDE ETA ARAUAK	4.3. OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS DE PROTECCIÓN DE LOS RECURSOS	89
4.3.1. Baliabide geologikoen babesa	4.3.1. Protección de los recursos geológicos	89
4.3.2. Habitaten, flora eta faunaren babesa	4.3.2. Protección de los hábitats, flora y fauna	90
4.3.3. Lehorreko baliabide hidrolagikoen babesa	4.3.3. Protección de los recursos hidrológicos terrestres	91
4.3.4. Paisaiaren babesa	4.3.4. Protección del paisaje	92
4.4. ERABILERAK ETA JARDUERAK ARAUTZEKO HELBURUAK, JARRAIBIDEAK ETA ARAUAK	4.4. OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS DE REGULACIÓN DE USOS Y ACTIVIDADES	94
4.4.1. Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera	4.4.1. Uso agrícola y ganadero	94
4.4.2. Basogintza-erabilera	4.4.2. Uso forestal	95
4.4.3. Erabilera publikoa	4.4.3. Uso público	96
4.4.4. Ehiza - eta arrantza-jarduerak lehorrean	4.4.4. Actividades cinegéticas y piscícolas en medio terrestre	99
4.4.5. Arrantza-jarduera itsasoan	4.4.5. Actividad pesquera en el medio marino	100
4.4.6. Jarduera zientifikoak eta ikerketa	4.4.6. Actividades científicas e investigación	101
4.4.7. Eraikuntza- eta azpiegitura- jarduerak	4.4.7. Actividades constructivas e infraestructuras	102



4.5. BABES-ERREGIMENAK	4.5. REGÍMENES DE PROTECCIÓN	104
4.6. BESTE BABES-ERREGIMEN BATZUK	4.6. OTROS REGÍMENES DE PROTECCIÓN	104
<b>5. INGURUMEN-ERAGINAREN EBALUAKETAREN MENDEKO JARDUERAK</b>	<b>5. ACTIVIDADES SOMETIDAS A EVALUACIÓN DE IMPACTO AMBIENTAL</b>	<b>105</b>
<b>6. KARTOGRAFIA ERANSKINAK</b>	<b>6. CARTOGRAFÍA ANEXOS</b>	<b>106 107</b>
I. ERANSKINA. ANTOLAMENDU- ESPARRUAREN DESKRIBAPEN XEHEKATUA	ANEXO I. DESCRIPCIÓN PORMENORIZADA DE ÁMBITO DE ORDENACIÓN	109
II. ERANSKINA. NBAP-REN ESPARRUAN DAUDEN LURRALDE- ANTOLAMENDURAKO ZEIN ANTOLAMENDU FISIKORAKO TRESNAK Lurralde Antolamenduko Artezpideak  Lurralde Plan Partzialak Lurralde Plan Sektorialak Udal-planeamendua Lurraldea planifikatzeko tresnen eta NBAP honen bateragarritasunaren analisis	ANEXO II. INSTRUMENTOS DE ORDENACIÓN TERRITORIAL O FÍSICA EXISTENTES EN EL ÁMBITO DEL PORN Directrices de Ordenación del Territorio Planes Territoriales Parciales Planes Territoriales Sectoriales Planeamiento municipal Análisis de la compatibilización de los diferentes instrumentos de planificación territorial con el PORN	110  111 111 113 116 122
III. ERANSKINA. ANTOLAMENDU- ESPARRUAN ERAGIN BEREZIA DUTEN ARAUDIAK 22/1998 Kosta legea Arrantzari eta itsaski-bilketari buruzko legeria	ANEXO III. NORMATIVAS CON ESPECIAL INCIDENCIA EN ÁMBITO DE ORDENACIÓN Ley 22/1998 de Costas Legislación pesquera y marisquera	124 124 126
IV. ERANSKINA. ONDARE GEOLOGIKOAREN ELEMENTU NAGUSIAK ETA HORIEK BABESTU ETA KUDEATZEKO PROPOSAMENAK Garrantzi geologiko berezia duten guneak	ANEXO IV. PRINCIPALES ELEMENTOS DEL PATRIMONIO GEOLÓGICO Y PROPUESTAS PARA SU PROTECCIÓN Y GESTIÓN Puntos de especial relevancia geológica	146 146



V. ERANSKINA. LURRALDE-EREDUAN BALIATUTAKO ERABILERA- ETA JARDUERA-TIPOLOGIAK	ANEXO V. TIPOLOGÍAS DE USOS Y ACTIVIDADES UTILIZADOS EN EL MODELO TERRITORIAL	153
Ingurumenaren babesa	Protección ambiental	153
Aisia eta atsedena	Ocio y esparcimiento	154
Oinarrizko baliabideen ustiapena	Explotación de recursos primarios	155
Azpiegiturak	Infraestructuras	156
Eraikuntza-erabilerak	Usos edificatorios	157
VI. ERANSKINA. NBAP HAU GARATZEKO DOKUMENTUAK	ANEXO VI. DOCUMENTOS PARA EL DESARROLLO DEL PRESENTE PORN	159
Erabilera publikoko plana	Plan de uso público	159
Ehizaren plan teknikoa	Plan técnico de caza	160
Laginketa geologikoen plana	Plan de muestreos geológicos	161
Jarraipen-plana	Plan de seguimiento	164
VII. ERANSKINA. ARGAZKI- ERREPORTAJEA	ANEXO VII. REPORTAJE FOTOGRAFICO	166



## 1. Deskribapena

### 1.1. Arrazoiketa

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko 16/1994 Legeari jarraiki, herri-administrazioak, beren eskumenen baitan, natur baliabideak modu antolatuan kudeatzeaz arduratuko dira, lurzorua, urak, landaredia, basa-flora eta -fauna kontserbatuz eta babestuz, nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-erabilerari nahiz azpiegitura eta eraikuntzen ezarpenari begira inguruneak duen ahalmena errespetatuko dela bermatuz eta ingurune hori hezkuntza- eta kultura-eremu gisa erabiltzea sustatuz. Natur Baliabideak Antolatzeko Planak (NBAP) printzipio horiek betetzeko berariazko tresnetako bat dira.

NBAPren lehen zehaztapena izango da antolatuko den lurralde-eremua mugatzea eta haren ezaugarri fisiko eta biologikoak deskribatu eta interpretatzea. Era berean, natur baliabideen, ekosistemen eta paisaien kontserbazio-egoera zehaztu behar da, eta haren diagnostikoa zein etorkizunean izango duen bilakaeraren aurreikuspena egin. Horrez gain, ezarri beharreko erabileren eta jardueren mugaketa orokor eta berariazkoak xedatu behar ditu NBAPk, babestu beharreko eremu eta espezieen kontserbazioaren nahiz lurraldearen zonakatzearen arabera.

Gipuzkoako itsasertzaren mendebaldera, Haitzandi (Deba ibaiko badiaren ekialdeko muturra, Deba) eta Haitzabal (Urola ibaiko bokalearen ezkerrekoa, Zumaia) artean dagoen lur-zerrendan, itsaslabarrez osatutako 8 km-ko tarte bat dago, oinarrian abrasio-plataforma zabalak dituena. Euskal Autonomia Erkidegoa osoki harturik, geologia-, paisaia- eta natura-balio handia duten elementuak daude eremu horretan 1. mapa)

## 1. Aspectos descriptivos

### 1.1. Justificación

De conformidad con la ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, las administraciones públicas velarán, en el ámbito de sus competencias, por que la gestión de los recursos naturales se realice de manera ordenada, conservando y protegiendo el suelo, las aguas, la vegetación, la flora y fauna silvestres, garantizando el respeto de la potencialidad del medio frente a los usos agrícolas, ganaderos, forestales y a la instalación de infraestructuras y construcciones, y promoviendo su utilización como espacio educativo y cultural. Los Planes de Ordenación de los Recursos Naturales (PORN) son uno de los instrumentos específicos para la consecución de tales principios.

La delimitación del ámbito territorial objeto de ordenación y la descripción e interpretación de sus características físicas y biológicas ha de ser la primera de las determinaciones de los PORN. Asimismo se ha de determinar el estado de conservación de los recursos naturales, los ecosistemas y los paisajes, y se ha de formular un diagnóstico del mismo y una previsión de su evolución futura. Además, el PORN ha de determinar las limitaciones generales y específicas de los usos y actividades que hayan de establecerse en función de la conservación de los espacios y especies a proteger, y en función de la zonificación del territorio.

La franja costera situada en el sector occidental del litoral guipuzcoano entre Haitzandi (extremo Este de la ensenada del río Deba, en Deba) y Haitzabal (en la orilla izquierda de la desembocadura del Urola, en Zumaia) comprende un tramo de acantilados de unos 8 km de longitud, con extensas plataformas de abrasión en su base. Este sector incluye elementos de valor geológico, paisajístico y naturalístico muy destacados en el conjunto de los



ecosistemas litorales del País Vasco (Mapa 1).

Itsasertzeko zerrenda horretan gehien nabarmentzen diren alderdiak haren geomorfologia, nazioartean ere bakana, eta, eremu isolatua eta iristen zaila izaki, gizakiak inguruan izan duen eragin txikia dira. Geologiaren ikuspegitik berebiziko interesa du, marearteko zabalgunearen handiagatik, flyscharen materialen higadura diferentzialaren ondorio, eta bertan Kretazeo eta Tertiario arteko zerrenda bat, agerikoa oso, ikus daitekeelako.

Paisaiaren ikuspegitik, itsasbazterraren fisiografiak higadura-arrasto interesgarriak ageri ditu eremu honetan, hala nola haran esekiak, oinarria atzeratua duten itsaslabarrak eta, bereziki, marearteko zabalgunek handi bat. Interesgarriak dira, halaber, itsasertzeko gunek horretara ematen duten ikus-eremuak. Habitata, faunak eta florak duten natur interesa higadurak sortu duen ingurune-aniztasunean datza. Izan ere, askotariko txoko ekologikoak eta landare zein animalien dibertsitate handia biltzen dira zabalgunearen marearteko eremuan.

Bertako natur balioak direla medio, eremuak Biotopo Babestu deklaratu izateko baldintza guztiak betetzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko 16/1994 Legearen 15. artikularekin bat etorriz. Nolanahi ere, deklarazio horren aurretik, eta aipatu legearen 18. artikuluari jarraiki, beharrezkoa izango da zonalde guztirako Natur Baliabideak Antolatze Plan bat taxutzea, baliabide horien kontserbazioa eta erabilera planifikatu eta eremuaren lurralde-mugak ezarriko dituen. Ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babestekoa, 9. artikuluan xedatzen duenez, Plana taxutu eta izapidetzeko prozesua Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren Agindua medio abiarazi behar da. Aipatu Agindua, 2006ko ekainaren 14koa, 2006ko uztailaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Destaca la geomorfología de este ámbito litoral, de gran singularidad a nivel internacional, así como la escasa alteración antropogénica que presenta la zona, debido sobre todo a su aislamiento y difícil acceso. El interés geológico es extraordinario debido a la extensión de la rasa mareal, fruto de la erosión diferencial de los materiales del *flysch*, y la presencia de una franja claramente marcada de transición entre el Cretácico y el Terciario.

Desde el punto de vista paisajístico, la fisiografía costera ofrece en este ámbito interesantes muestras de erosión, con valles colgados, acantilados en retroceso y, especialmente, una extensa rasa mareal. El interés naturalístico radica en la diversidad de ambientes creados por la erosión y que posibilita una elevada diferenciación de nichos ecológicos y una gran diversidad vegetal y animal en la zona intermareal de la rasa. Asimismo, el interés paisajístico se extiende a las cuencas visuales vertientes a este tramo costero.

Los valores naturales existentes en dicho espacio le hacen merecedor de su declaración como Biotopo Protegido, de acuerdo con el artículo 15 de la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco. No obstante, previo a dicha declaración, y de acuerdo con el artículo 18 de la citada ley, será necesaria la elaboración de un Plan de Ordenación de los Recursos Naturales para el conjunto de esta zona, que planifique la conservación y uso de los mismos y establezca los límites territoriales de este espacio. Así, de acuerdo con el artículo 9 de La Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, el proceso de elaboración y tramitación del Plan debe iniciarse mediante Orden de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio. Dicha Orden, de 14 de junio de 2006, fue publicada en el Boletín Oficial del País Vasco el 7 de julio de 2006.



## 1.2. Xedapen orokorrak eta aurrekariak

### 1.2.1. Izaera

Deba eta Zumaia arteko itsasertzaren Natur Balioak Antolatzeko Plana ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babestekoa, xedatutakoaren anparoan ondu da. Lege horren II. Tituluan, tankera horretako plangintza-tresnen xedeak, irismena, edukiak, ondorioak eta prozedura orokorrak ezartzen dira.

### 1.2.2. Aplikazio-esparrua

Deba eta Urola ibaietako bokaleen artean kokatutako itsasertzeko zerranda Gipuzkoako ipar-mendebaldean dago. Inguru berezi eta bakan egiten duen natur elementua 8 km inguruko itsaslbaran eremu malkartsua da, oinarrian abrasio-plataforma zabalak dituena. Barrualdera, bertara isurtzen duten eta elkarren segidan doazen arro txikiek landazabaleko itsas paisaia orekatu eta estetikoki erakargarria osatzen dute. Antolamendu-plan honek barne hartzen duen eremua Deba ibaiaren bokalearen (Debako udalerrria) eta Haitzabalen (Zumaiaiko udalerrria) artekoa da. Barrualdera, itsas eragin handieneko ikus-eremuek mugatzen dute, nagusiki, antolamendu-esparrua. Itsas zabalean, muga Barruko Urena izango da (1. mapa).

Dokumentu honen I. eranskinean, esparru hau xeheki deskribatzen da.

Horrela mugatutako barne-perimetroak 4.300 ha inguruko azalera hartzen du; horietatik 3.756 ha itsasoari dagozkio eta 495 ha lehorreko eremuari, Debako udalerrrian (%84) eta Zumaian (%16). Gainerako 49 ha-k Itsaso eta Lehorren arteko Jabari Publikokoak (ILJP) dira.

### 1.2.3. Helburu orokorrak

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko 16/1994 Legearen arabera, antolamendu-planak dira natur baliabideak planifikatzeko tresnak, eta horiei

## 1.2. Disposiciones generales y antecedentes

### 1.2.1. Naturaleza

El documento Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del tramo litoral Deba-Zumaia se redacta al amparo de lo dispuesto en la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco. En el Título II de esta Ley se establecen las finalidades, alcance, contenidos, efectos y procedimientos generales a que está sujeto este tipo de instrumentos de planificación.

### 1.2.2. Ámbito de aplicación

La franja costera situada entre las desembocaduras de los ríos Deba y Urola se localiza al noroeste de Gipuzkoa. El elemento natural que dota de singularidad al espacio es un área de acantilados abrupta, de unos 8 km de longitud, y que posee extensas plataformas de abrasión en su base. Hacia el interior, un conjunto de pequeñas cuencas vertientes consecutivas conforman un paisaje de campiña marítima armónico y estéticamente atractivo. El espacio contemplado en este Plan de Ordenación se corresponde con el tramo costero comprendido entre la desembocadura del Deba (municipio de Deba) y Haitzabal (municipio de Zumaia). Hacia el interior, el ámbito de ordenación está delimitado fundamentalmente por las cuencas visuales de mayor influencia marina. Mar adentro, el límite corresponde al límite de Aguas Interiores (Mapa 1).

Este ámbito se describe pormenorizadamente en el Anexo I de este documento.

El perímetro interior así delimitado abarca una superficie aproximada de 4.300 ha, de las que 3.756 ha corresponden a la zona marina y 495 ha a la terrestre, correspondientes a los municipios de Deba (el 84 %) y de Zumaia (16%). Las aproximadamente 49 ha restantes, pertenecen al dominio público marítimo-terrestre (DPMT).

### 1.2.3. Objetivos genéricos

De acuerdo a la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, los Planes de Ordenación son los instrumentos de planificación



jarraiki herri-administrazioek beren eskumenak de los recursos naturales, en virtud de los cuales las administraciones públicas ejercerán sus competencias atendiendo a una serie de principios básicos:

- Paisaia babestea
- Natur baliabideak modu antolatuan kudeatzea.
- Lurzorua erabiltzeko orduan, hura kontserbatu eta babestea.
- Nekazaritza-erabilera bermatzea, horretarako egokiak diren lurretan.
- Baliabide hidrikoak babestea.
- Landaredia kontserbatzea, bereziki basoak, heskaiak eta erriberako landareak.
- Landaredia eta ekosistema naturalak lehenera ekartzea
- Basa-fauna eta -flora errespetatzea.
- Naturaren ikerketa eta hezkuntza proiektuak egin daitezzen sustatzea
- Natur ingurunea kultura- eta aisialdi-eremu gisa erabiliko dela bermatzea.
- Balizko mugaketengatik konpentsazioak bermatzea.
- Proteger el paisaje
- Gestionar los recursos naturales de manera ordenada
- Utilizar el suelo conservándolo y protegiéndolo
- Garantizar el uso agrario de los suelos aptos para esta finalidad
- Proteger los recursos hídricos
- Conservar la vegetación, especialmente bosques, setos y vegetación ribereña
- Restaurar la vegetación y los ecosistemas naturales
- Respetar la fauna y la flora silvestres
- Promover el estudio de la naturaleza y la realización de proyectos educativos
- Garantizar el uso del medio natural como espacio cultural y de ocio
- Garantizar compensaciones por eventuales limitaciones

#### 1.2.4. Indarraldia eta berrikuspenerako baldintzatzaileak

Antolamendu Plan honen indarraldia mugagabea izango da. Haatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko 16/1994 Legearen 5. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez aldatu edota eguneratuko da, gorabehera hauetakoren bat gertatuz gero:

- Antolatutako eremuaren baldintza natural, ekonomiko edo sozialetan aldaketa nabarmenak ematea.
- Antolamendu Plan hau taxutzean funtsezkoak izan diren helburuak eta irizpideak aldatzea.

#### 1.2.4. Vigencia y condicionantes de revisión

El presente Plan de Ordenación tendrá una vigencia indefinida. No obstante, se procederá a su modificación y/o actualización mediante el procedimiento previsto en el artículo 5 de la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, si concurrieran alguna de las siguientes circunstancias:

- Cambios significativos en las condiciones naturales, económicas o sociales del espacio ordenado.
- Variación de los objetivos y criterios que han prevalecido en la redacción de este Plan de Ordenación.



• Bi urtez behingo txostenetan edo sei urtez behingo berrikuspen orokorrean hori gomendatzea, jarraipen-planak eskaintako datuei jarraiki.

### 1.2.5. Eremuaren kudeaketa

1.- Naturgune babestuaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio.

2.- Organo Kudeatzaileak, 16/1994 Legearen 35.2 artikuluan aipatzen den lankidetzaren esparruan, Herri Administrazioekin hitzarmenak sinatuko ditu, batez ere Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Sailburuordetzarekin, itsas ingurunea zaintzeko eta ikuskatzeko. Gogoan izanik Zumaiako udalak kudeatzen duen Algorri Interpretazio Zentroaren ibilbidea, udal horrekin hitzarmen berriak sinatuko ditu bi organismoen arteko beharrezko lankidetzak bermatzeko.

### 1.3. Lurzoruaren jabetza eta legezko eskubideak

ILJPren zedarripen-lerroak eta antolamendu-esparruaren mugaketa-lerroak barne hartzen duten 495,2 ha-tik, antolatutako alderdiko lurren ia erdiak jabari publikoak dira (5. mapa); Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzako bi lurzati dira, guztira 213,3 ha hartzen dituztenak. Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren zedarripenak 48,5 ha-ri erasaten dio guztira.

Gainerako lurrak titularitate pribatukoak dira, gehientsuenak lurzati txikiak. Lursailen titularitate pribatuak berekin dakartza legeriak aitortzen dituen erabilera- eta probetxamendu-eskubideak. Halaber, lursail eta bide publiko edo finkatu gehienek gainean igarotze- eta aisia-eskubideak daude.

Lursailen titularitate-banaketa hori Mendata muturrean zentral nuklear bat eraikitzeko proiektuak, gaur egun bertan behera utzia, baldintzatu du. 70eko urteetan, Iberduerok 120 ha baino gehiago erosi zituen Sondabeltza eta

• Recomendación favorable al respecto de los informes bienales o en la revisión general efectuada cada seis años, en función de los datos proporcionados por el plan de seguimiento.

### 1.2.5. Gestión del espacio

1.- La gestión del espacio natural protegido corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2.- El Órgano Gestor, en el marco de la colaboración a la que se refiere el artículo 35.2 de la Ley 16/1994, suscribirá convenios con otras Administraciones Públicas, especialmente con la Viceconsejería de Pesca del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco, para la vigilancia e inspección en el medio marino. Teniendo en cuenta la trayectoria del centro de interpretación Algorri, gestionado por el Ayuntamiento de Zumaia, suscribirá convenios de colaboración con este ayuntamiento para garantizar la necesaria coordinación entre ambos organismos.

### 1.3. Propiedad del suelo y derechos legales

De las 495,2 ha comprendidas entre la línea de deslinde del DPMT hasta la línea de delimitación del ámbito de ordenación, prácticamente la mitad de los terrenos del área ordenada son de titularidad pública (Mapa 5), se trata de dos parcelas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que suman un total de 213,3 ha. Los terrenos afectados definitivamente por el deslinde del dominio público marítimo-terrestre suman un total de 48,5 ha.

El resto de los terrenos son de titularidad privada y se dividen, por lo general, en parcelas de pequeña extensión. Ligados a la titularidad privada de los terrenos existen derechos de uso y aprovechamiento reconocidos por la legislación. Se contemplan también derechos de tránsito y recreo en la mayoría de los terrenos y caminos públicos o consolidados.

Este reparto en la titularidad de los terrenos está condicionado por el proyecto, hoy en día abandonado, de construcción de una central nuclear en punta Mendata. Durante los años 70, Iberduero adquirió más de 120 ha en el tramo comprendido



Aitzbeltz arteko gunean. Garaitsu hartan, Debako Udalak, argi eta garbi zentrala eraikitzeko proiektuaren aurka zegoelarik, zenbait lursail erosi zituen Elorriaga eta Galarreta artean, bertan parke publiko bat paratzeko asmoz. Lursail horiek guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoak dira gaur egun, eta bertan zenbait baserri daude, titularitate publikokoak izan arren garai bateko jabeen edo haien ondorengoen bizileku direnak (1. taula). Jabetza horiek Herriaren Onurako Mendi gisa kalifikatuta daude, Mendata Muturra izendapenez; eremu hori azaroaren 21eko 108/1995 Foru Dekretuak onartutako Gipuzkoako Herriaren Onurako Mendien Katalogoan jasota dago 1.029.1 zenbakiaz.

**1. taula.** Esparruaren barruan kokatutako baserrien zerrenda, horien udal-barrutia eta jabea. Oraindik orain Mendata eta Iturrieta baserriak eraitsiak izan dira, eta Arantza Behekoa, berriz, auri-egoeran dago, berehalako eraispena sumatzen delarik.

entre Sondabeltza y Haitzbeltz. Por aquellos años también, el Ayuntamiento de Deba, en clara oposición al proyecto de la central, adquirió diversos terrenos entre Elorriaga y Galarreta con el objetivo de convertirlo en parque público. Tanto unos terrenos como otros son hoy en día propiedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa y poseen en su interior una serie de caseríos que, aunque de titularidad pública, están habitados por los antiguos propietarios o sus descendientes (Tabla 1). Dichas propiedades tienen la calificación de Monte de Utilidad Pública, con la denominación de Mendata Muturra, que figura inscrito con el n.º 1.029.1 en el Catálogo de Montes de Utilidad Pública de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 108/1995, de 21 de noviembre.

**Tabla 1.** Listado de los caseríos ubicados en el interior del ámbito, Término municipal en el que se ubican y propietario. Se ha procedido recientemente al derribo de los caseríos Mendata e Iturrieta, mientras que el denominado Arantza Behekoa está en estado ruinoso y se presume su inminente derribo.

<b>Izena/Nombre</b>	<b>Udal barrutia/ Término Municipal</b>	<b>Jabetza/Propiedad</b>
Sakoneta	Deba	GFA/DFG
Mendata	Deba	GFA/DFG
Iturrieta	Deba	GFA/DFG
Uzkanga Goikoa	Deba	GFA/DFG
Uzkanga Behekoa	Deba	GFA/DFG
Arantza Goikoa	Deba	GFA/DFG
Arantza Behekoa	Deba	GFA/DFG
Sorginetxe	Deba	Partikularra/Particular
Pikote	Zumaia	Partikularra/Particular
Sta Klara	Zumaia	Partikularra/Particular
Ardantza Berri	Zumaia	Partikularra/Particular
Ardantza Txiki	Zumaia	Partikularra/Particular
Ardantza	Zumaia	Partikularra/Particular
Itxasondo	Zumaia	Partikularra/Particular
Talaimendi	Zumaia	Partikularra/Particular
Andikara Berri	Zumaia	Partikularra/Particular

NBAPren esparruaren baitan dago, halaber, Dentro del ámbito del PORN se encuentra también la Debako Hondakin Uren Araztegia (Arranomendi). EDAR de Deba (Arranomendi).

#### 1.4. Ezaugarri fisiko eta biologikoen deskribapena eta interpretazioa

Kapitulua hau lantzeko orduan, eta bereziki marearte eta itsas inguruneari buruzko atalerako, AZTIren bi txosten tekniko hartu dira

#### 1.4. Descripción e interpretación de las características físicas y biológicas

Para la elaboración de este capítulo, y en especial la temática dedicada al medio intermareal y marino, se ha tomado como base el contenido de dos informes



oinarri gisa: “Algorriko marearteko zabalgunea ezagutzeko oinarri teknikoak ezartzea Biotopo Babestua deklaratzeko ahal izateko”, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eskariz 2000. urtean egina, eta “Deba eta Zumaia arteko itsas tarterako dagoen informazioa zabaltzea”, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren eskariz 2007ko abenduan egina. Azken txosten hori dokumentu honen beste kapitulu batzuetako zati garrantzitsuen oinarri ere bada.

técnicos de AZTI, 2000 titulados “*Establecimiento de las bases técnicas de conocimiento de la rasa mareal de Algorri con vistas a su posible declaración como Biotopo Protegido*”, realizado a petición del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco en el año 2000 y “*Ampliación de la información disponible para el tramo marino comprendido entre Deba y Zumaia*”, realizado a petición de la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco, en diciembre de 2007. Este último informe también constituye la base para partes importantes de otros capítulos de este documento.

#### 1.4.1. Eskualdeko klima

Antolatutako zonaldeak Kantauri Itsasoaren klima leuna du; alegia, euri ugari urte osoan zehar, eta temperatura epelak. Temperaturaren epela eta uraren ugariagatik, landarediaren hazkunderaia ia ez du etenik.

#### 1.4.1.1. Klima comarcal

El área ordenada goza de las características atemperadas del clima del litoral cantábrico, con precipitaciones frecuentes durante todo el año y temperaturas suaves. El régimen térmico es cálido y la disponibilidad hídrica alta, lo que condiciona una duración del periodo vegetativo casi continua.

Urtean, prezipitazioak 1.040 eta 2.180 mm artekoak dira, eta euria 150-200 egunetan egiten du. Prezipitazio gehien udazkenean izaten dira, eta muturreko balioak abenduan ematen dira. Aitzitik, uda hasiera arorik lehorrena izan ohi da.

El rango de las precipitaciones anuales registradas en el área de estudio oscila entre 1.040 y 2.180 mm, con un intervalo de 150 a 200 días de lluvia al año. Las máximas precipitaciones tienen lugar durante el otoño, con valores extremos en diciembre. Por el contrario, el principio del verano suele ser la época más seca.

Urteko batez besteko temperatura 13°C ingurukoa da; hil beroenaren (abuztua) eta hotzenaren (abendua) batez besteko temperaturen arteko aldea, berriz, 12°C inguruko da. Izotzaldiak eta temperatura altuak (> 35°C) oso gutxitan izaten dira; batez besteko maiztasunak urteko 5 eta 10 egunekoak dira, hurrenez hurren.

La temperatura media anual es de 13°C, mientras que la diferencia entre la temperatura media de agosto (mes más cálido) y la temperatura media de enero (mes más frío) es de unos 12°C. La frecuencia de heladas, así como de altas temperaturas (> 35°C) es muy escasa, con unas frecuencias medias de menos de 5 días y 10 días por año, respectivamente.

Haizeei dagokienez, iparraldekoak dira ohikoenak, eta gehieneko maiztasunak udan markatzen dituzte; hego-haizeak urriagoak dira, eta udazkeneguan dira ohikoen. Ondorioz, temperaturak leunak dira neguan eta neurritsuak udaran, eta urteko laino-egunak (%12) espero baino gutxiago dira, hezetasun erlatiboaren balio altuei (%80) erreparatuz gero behintzat.

Los vientos de componente norte muestran la frecuencia más alta en la región, con máximas frecuencias durante el verano, mientras que los de componente sur son más escasos y dominantes durante el otoño-invierno. Como resultado, las temperaturas son suaves en el invierno y moderadas en verano, y el número de días de niebla al año (12%), es muy inferior al esperado a tenor de los



altos valores de humedad relativa (80%).

#### 1.4.2. Ozeanografia

#### 1.4.2. Oceanografía

##### 1.4.2.1. Olatuak

##### 1.4.2.1. Oleaje

Bizkaiko Golkoaren iparraldeko plataforma kontinentalean, itsasoaren egoera era askotakoa izan daiteke, bai olatuaren garaierari bai jatorri-puntutik igarotzeko batez besteko aldiari dagokionez, eta energia-iturri baliagarritzat jotzen da.

La plataforma continental septentrional del Golfo de Vizcaya está expuesta a un amplio rango de estados de mar posibles, tanto en términos de altura de ola, como de período medio de paso por cero, considerándose un medio de fuerte energía.

Olatuaren gehieneko garaiera 7,5 m-koa da urtean, 9 m-koa 10 urtero eta 11,5 m-koa 100 urteko birgertatze-aldi baterako. Olatualdi bakoitza 4 eta 22 s bitartekoa da, eta tarte ohikoenak 8 eta 12 s bitartekoak dira. Udaran (apiriletik irailera), olatuak txikiak dira eta olatualdien %80 10 s-tik azpikoak. Ordea, neguan (urritik martxora) gehieneko garaieren (H) %75 baino gehiago 1 m-tik gorakoak dira, eta olatualdien %80 10 s-tik gorakoak. Olatuen norabideen azterketa estatistikoak agerian uzten duenez, distantzia handietara sortutako olatuak (*swell* motakoak), iparraldetik etorriak, dira maizkoenak, eta tankera horretakoak dira, hain zuzen ere, zonaldean izaten diren olaturik handienak. Olatuen %77 laugarren koadrantetik datoz. Hurbilean sortutako olatuak (*sea* motakoak) *swell* motakoak baino txikiagoak dira garaieran eta jatorri-puntutik igarotzeko batez besteko aldian, eta jatorria ere askotarikoa dute.

La altura de ola máxima anual es de 7,5 m, de 9 m cada 10 años y de 11,5 m para un período de recurrencia de 100 años. Los períodos de ola registrados en la zona comprenden desde 4 hasta 22 s, siendo los más frecuentes entre 8 y 12 s. Así se distingue una época estival (desde abril hasta septiembre), durante la cual las olas son de un tamaño reducido y el 80% de los períodos no supera los 10 s. Sin embargo durante la época invernal (desde octubre hasta marzo), más del 75% de las alturas máximas (H máx) supera 1 metro, y el 80% de los períodos es superior a 10 s. El estudio estadístico de direcciones de ola evidencia una predominancia de olas generadas a grandes distancias (tipo *swell*), del sector noroeste (25%), coincidiendo éstas con las olas de mayor tamaño en la zona. El 77% de las olas en la zona provienen del cuarto cuadrante. Las olas de origen próximo (tipo *sea*), son de menor altura y período que las tipo *swell*, y provienen principalmente del oeste, estando muy repartido su origen a lo largo de la rosa de los vientos.

##### 1.4.2.2. Marea

##### 1.4.2.2. Marea

Inguruko marea egun-erdikoa da. Marea-uhina mendebaldetik sartzen da Bizkaiko Golkora eta ekialdera hedatzen, eta golkoan barneratu ahala handiagotuz doa. Azter-eremuan, batez besteko marea-maila 1,5 m ingurukoa da marea hiletan eta 4 m-koa marea bizietan. Urteko gehieneko maila 4,5 m-tik gorakoa da.

La marea en la zona es de tipo semi-diurna. La onda de marea penetra en el Golfo de Vizcaya por el oeste y se propaga hacia el este aumentando su amplitud a medida que va penetrando en el golfo. En la zona de estudio el rango mareal medio es de aproximadamente 1,5 m en mareas muertas y de 4 m en mareas vivas. El máximo rango anual supera los 4,5 m.

Datu horien arabera, marea hileko aldietan kostaldea mesomareal baxu gisa definitzen da, eta

Según estos datos la costa se define como mesomareal baja durante los períodos de mareas



marea biziak direnean, berriz, mesomareal altu gisa.

Marea igotzen ari denean, sakoneko tirainak materia organiko eta ez-organikoko kopuru handiak ostera mugimenduan jar daitezten eragiten du. Fenomeno hori 10 m inguruko sakonera arte gertatzen da abrasio-plataformetan, eta azken urteotan areagotu egin da, Pikote aldean izan diren luizien ondorioz.

#### 1.4.2.3. Inguruko korronteak

Urazalean, hirugarren koadrantean dira korronteak maizkoen, eta gehieneko abiadurak hirugarren koadrante horretan zein laugarrengoan ematen dira. Abiaduren batez besteko baliorik altuena NNW norabidean aurkitu da.

Hondoan, hegoaldeko korronteak dira jaun eta jabe. Gehieneko abiadurak  $50 \text{ cm.s}^{-1}$ -tik gorakoak dira ESE eta SSE norabideetan, eta batez besteko altuenak ere norabide horietan ematen dira.

#### 1.4.2.4. Uraren tenperatura

Sakonera txikieneko eremuetan, homotermia nabarmena da (urazalaren eta hondoaren arteko aldea ez da  $1,5^{\circ}\text{C}$ -tik gorakoa); itsasbazterrerako distantzia eta, horrenbestez, sakonera areagotu ahala, geruzapen termikoa ere handiagoa da, urgeruza hotzagoak agertzean. Dena den, gune sakonenetan ere ez dago tenperatura-gradiente nabarmenik.

Bokaleetatik hurbileko itsasertz-inguruetan, Deba eta Urola ibaietako urek, hotzagoak eta ez hain gaziak, gainazalean irauten dute, harik eta denboraleek ur-zutabearen nahasketa mekanikoa eragiten duten arte.

#### **1.4.3. Geologia eta geomorfologia**

8 km luze inguru dituen Zumaia eta Deba arteko itsasertzaren bereizgarri nagusia itsasoaren higaduragatik eboluzio handiagoa edo txikiagoa ageri duten abrasio-plataformekiko labarrak dira. Ezponda arrokatsuen gaineko olatualdi zakarrak harri-blokeak multzoka jausarazten ditu eta,

muertas, y de mesomareal alta durante las épocas de mareas vivas.

Durante la subida de la marea, el oleaje de fondo provoca la resuspensión de una gran cantidad de materia orgánica e inorgánica. Este fenómeno se registra en la plataforma de abrasión hasta una profundidad de unos 10 m y se ha visto acrecentado durante los últimos años como consecuencia de los desprendimientos acaecidos en la zona de Pikote.

#### 1.4.2.3. Corrientes en la zona

En superficie existe un predominio de corrientes en el tercer cuadrante mientras que las velocidades máximas se reparten entre este tercer cuadrante y el cuarto. El valor medio más alto de las velocidades ha sido obtenido en la dirección NNW.

En fondo, se observa un acentuado dominio de las corrientes de componente Sur. Las velocidades máximas superan los  $50 \text{ cm.s}^{-1}$  en las direcciones ESE y SSE, siendo las medias más altas también en estas direcciones.

#### 1.4.2.4. Temperatura del agua

En las zonas más someras la homotermia es notable (la diferencia entre la superficie y el fondo no excede los  $1,5^{\circ}\text{C}$ ), mientras que se registra un incremento de la estratificación térmica al aumentar la distancia a la costa y el consiguiente aumento de la profundidad, con aparición de capas de agua más frías. Sin embargo, incluso en las zonas más profundas, no se registran gradientes térmicos de relevancia.

En las zonas costeras próximas a las desembocaduras, al ser las aguas del Deba y del Urola más frías y menos saladas, permanecen en la superficie hasta que los temporales originan la mezcla mecánica de la columna de agua.

#### **1.4.3. Geología y geomorfología**

La zona costera entre Zumaia y Deba, de unos 8 km de longitud, se caracteriza por ser una costa acantilada con plataformas de abrasión más o menos evolucionadas como consecuencia de la acción erosiva del mar. El intenso oleaje incidente sobre los taludes rocosos produce una caída generalizada de



ondorioz, urertzak ere atzera egiten du, labarren oinarrian aipatu abrasio-plataformak eratuz. Geruza litologiko gogorrenak puntak edo lurmuturrak eratuz eusten dute, eta ahulenak, berriz, itsasoak gupidagabe irensten ditu, badia zabalak sortuz.

Ondorioz, -10 m-ko kota labarraren oinetik 700 m baino gehiagora dago, Aitzuriko badiaren parean, eta -30 m-koa 2 km ingurura. Zabalgunearen urpeko zatiari dagokionez, egindako batimetriek erakusten dute itsas hondoa arras irregularra dela eta flyscharen harkaitzezko irtenune oso geruzatuek osatzen dutela. Salbuespen gisa, Urolaren bokalearen parean hondar ertain eta xeheko zerrenda bat dago, irtenune arroksuez inguratua. Sakonune horrek, sedimentu berriez betea, 1 eta 5 m arteko lodiera du; -15 eta -25 m-ko koten artean, lodiera 5 m-koa da. Gainerakoan sakonune txikiak daude, aipatzeko moduko bakarra Itzurungo hareatza.

Itsasbazerreko eremu honen beste bereizgarri garrantzitsu bat da 1 km baino laburragoak diren malda txiki eta profil irekiko erreken presentzia. Itsas mailatik 10 eta 30 m-ra zintzilik daude eta ur-jauzi moduan nahiz labarreko hormetatik irristatuz isurtzen dute itsasora. Haran luzeagoak ere (2-3 km) badira, hondartza harritsuak eratuz eta labarraren aurrealdea etenda (Arranomendi, Oscon edota Sakoneta) itsasoratzen direnak.

Geologiaren ikuspegitik, itsasertza osatzen duten materialen izaerari eta haien antolamendu geometrikoari erreparatuz, Deba eta Zumaia artean lau zona bereiz daitezke (2. mapa):

1) Endata edo Mendata muturraren eta Debaren arteko eremua.

Behe Kretazeoko turbidita-erako harearri eta lutiten geruza dezimetrikoez osatua, labarraren aurrealdetik paraleloan doa. Horrenbestez, labarra zuzena da eta geruza horietakoren bat ageri du. Geruzak tolestuak eta hautsiak dauden gunetan, itsaslabarrak oro har berezko duen

bloques y el consecuente retroceso de la línea de costa formándose en la base de los acantilados las mencionadas plataformas de abrasión. Mientras las capas litológicas más duras resisten formando puntas o cabos, las más endebles son literalmente comidas por el mar, dando lugar a amplias ensenadas.

En consecuencia la cota -10 m está a más de 700 m del pie del acantilado frente a la ensenada de Atxuri y la -30 a unos 2 km. En cuanto a la parte sumergida de la rasa, las batimetrías realizadas muestran que los fondos marinos son sumamente irregulares y que están constituidos por afloramientos rocosos muy estratificados del *flysch*. Únicamente frente a la desembocadura del Urola existe una lengua de arenas medias y finas, rodeada por afloramientos rocosos. Esta depresión, rellena de sedimentos recientes, presenta en general unos espesores entre 1 y 5 m, si bien entre las cotas -15 y -25 m llega a alcanzar 5 m de espesor. En el resto hay tres pequeñas depresiones, entre las que cabe mencionar únicamente el arenal de Itzurun.

Otra característica importante de esta zona costera es la presencia de arroyos de recorrido inferior a 1 km, poca pendiente y perfil abierto, colgados entre 10 y 30 m sobre el nivel del mar desembocando en cascada sobre el mismo, o bien, deslizándose sobre las paredes del acantilado. Otros valles de recorrido mayor (2-3 km) desembocan en el mar formando playas pedregosas e interrumpiendo el frente del acantilado (Ej.: Arranomendi, Oscon y Sakoneta).

Desde el punto de vista geológico, atendiendo a la naturaleza de los materiales que componen la zona costera y a su disposición geométrica, entre Deba y Zumaia se pueden diferenciar 4 zonas (Mapa 2):

1) Zona comprendida entre Deba y Punta Endata o Mendata.

Compuesta por capas decimétricas de areniscas y lutitas de origen turbidítico del Cretácico Inferior con una dirección paralela al frente del acantilado. Como resultado, el acantilado es rectilíneo y coincidente con alguna de estas capas. En las zonas en las que las capas se encuentran plegadas y



ezegonkortasuna areagotu egiten da, labarraren harrotze-prozesuei bide eginez (Itxaspeko badia). Haitzandin, alpe zuzeneko tolestura angelukarak eta alpeen elkartze-gune murrizak ikus daitezke, zentimetro batzuetako lodiera duten geruzetan paratutako hareharri eta lutiten antolaera asaldatuz. Turbidita-erakoak dira, Behe Kretazeokoak.

2) Endata edo Mendata muturraren eta Aitzuri muturraren arteko eremua.

Behe Kretazeoko turbidita-erako kareharriez eta marga-kareharriez osatua. Mendata Erreka Aurrean, izen bereko ubidea itsasoratzen da; mailaz maila behera doan haran batetik zehar bidea egin ondoren, bortizki ur-jauzi gisa erortzen da itsaslabarraren gainean esekita dagoen haranaren oinean kokatutako harri-koskorreko hondartzarantz. Labarreko geruzen eta inguruan nagusi den tirainaren norabidea bat bera izateak labarraren oinean zuloak eta azpijan-fenomenoak sortzea dakar. Antzeko fenomenoak gertatzen da Sakonetako senaian; bertan, harri-koskorreko hondartzak labarraren kontrahormak ditu bi alboetara, higadura diferentzialaren eta azpijanaren adibide garbia agertuz.

3) Sakoneta eta Aitzgorri muturren arteko eremua, Aitzuriko senaian, Goi Kretazeoko margek eta marga-kareharriek, horiek ere turbidita-erakoak, definitzen dute. Itsaslabarraren atzerakada hain azkarra izan da, ezen haranak labar azpibertikaletan zintzilik baitaude, egoera oso ezegonkorrean gainera, 100 m-tik gorako altueretan.

4) Aitzgorri muturraren eta Marianton muturraren arteko eremua.

Zumaian kokatua, Tertiarioko kareharri, marga-kareharri, marga eta lutiten geruza dezimetrikoez osatua dago. Bi muturren artean San Telmo hondartza dago, Euskal Herrian interes geologiko handien duen guneetako bat, harkaitzezko irtenuneen kalitateagatik eta Goi Kretazeotik

fracturadas se acentúan los fenómenos de inestabilidad general del acantilado, dando lugar a procesos de remoción del mismo (ensenada de Itxaspe). En Haitzandi se observan pliegues angulares de flancos rectilíneos y zona de charnela reducida que afectan a areniscas y lutitas dispuestas en capas de unos centímetros de espesor. Su origen es turbidítico y correspondientes al Cretácico inferior.

2) Zona entre punta Endata o Mendata y punta Haitzuri.

Compuesta por calizas y calizas margosas del Cretácico inferior de origen turbidítico. En Mendata erreka aurrea desemboca la regata del mismo nombre, que tras discurrir superficialmente por un valle escalonado, cae bruscamente en cascada hacia la playa de cantos situada al pie del valle colgado del acantilado. La coincidencia de la dirección de las capas del acantilado con la del oleaje predominante, favorece el desarrollo de oquedades y fenómenos de socavación al pie del mismo. Fenómeno similar se produce en la cala Sakoneta donde la playa de cantos se encuentra flanqueada por los contrafuertes del acantilado ofreciendo un ejemplo claro de erosión diferencial y socavación.

3) Zona comprendida entre las puntas de Sakoneta y Aitzgorri, en la ensenada de Haitzuri, está definida por margas y margocalizas del Cretácico superior, también de génesis turbidítica. El retroceso del acantilado ha sido tan rápido que los valles se encuentran colgados en los acantilados subverticales y muy inestables, con alturas superiores a los 100 m.

4) Zona comprendida entre Punta Aitzgorri y Punta Mariantón.

Situada en Zumaia, está compuesta por capas decimétricas de calizas, calizas margosas, margas, y lutitas del Terciario. Entre ambas puntas se sitúa la playa de San Telmo que, por la calidad de los afloramientos rocosos y por constituir el tránsito Cretácico superior-Terciario, es uno de los puntos de



Tertziariorako iragaitea erakusten duelako (2. mapa). Iragaita hori kareharrizko tarte baten sekuentziaren oinarrian ikus daiteke.

Deba eta Zumaia arteko itsasbazterreko zerrendan, ageriko estratuen ondoz ondoko geruzak geologia-liburu baten pareko dira, zortzi bat kilometrotan Lurraren historiako 50 milioi urte inguru barne hartzen dituen, hasi Haitzandi aldeko 100 milioi urteko arroketan kokatutako Goi Kretazeoaren oinarritik eta Marianton aldean ageri diren Tertziarioaren hasierako hareharrietara.

Beraz, antolamendu-esparruko labarrak bizitzaren historiari buruzko datuen zain agortezina dira joan den mendearen 50eko urteetatik abrasio-plataforma honetan ikertzen ari diren ehunka zientzialarientzat. Material bigun eta gogorren ondoz ondoko segidak informazio aski baliotsua eskaintzen du itsasoko zein lehorreko organismoen fosiletan islatua, planetan gertatu diren klimaldaketei, hondamendi naturalei eta espezieen suntsipenei buruzko informazioaz gain.

Bestalde, K/T mugan 5 mm inguruko lodiera duen buztinezko geruza bat ageri da, osmio eta iridioan –lurrazalean urria izan arren izarrarteko espazioan ugaria den elementua– aberatsa. Horrek Iraungipen Handia deitutakoaren teoria bermatzen du, alegia duela 65 milioi urte Mexikoko Golkoan eroritako meteorito erraldoi baten inpaktuak Lurra hauts eta zatikien laino-mataza batean murgildu zuela eta dinosauroak eta beste hainbat espezie iraungi zituela. Antolamendu-esparru honetan orobat aurki daitezke geroago desagertu ziren beste espazio fosildu batzuk.

Azter-eremuko irtenuneen proportzioa ez da ohikoa, haien tamainagatik, hartzen duten aro geologikoaren zabalagatik eta irisgarriak izateagatik. Era Sekundarioaren eta Tertziarioaren arteko mugaz gain (K/T, Kretazeo-Tertziario muga), beste aro geologikoen arteko trantsizio aski markatuak ere badira, hala nola Era Tertziarioaren

mayor interés geológico del País Vasco (Mapa 2). Dicho tránsito puede observarse justo en la base de la secuencia de un tramo calizo.

En la franja costera entre Deba y Zumaia, las sucesivas capas de estratos visibles se asemejan a un libro de geología de unos ocho kilómetros de longitud que abarca aproximadamente 50 millones de años de historia de la Tierra, es decir, desde la base del Cretácico Superior, situadas en rocas estratos de hace 100 millones de años en el área de Haitzandi, hasta las areniscas que afloran en la zona de Marianton, de comienzos del Terciario.

Los acantilados del ámbito de ordenación suponen, por tanto, un filón inagotable de datos sobre la historia de la vida para cientos de científicos y científicas que desde los años 50 del siglo pasado investigan en esta plataforma de abrasión. La sucesión consecutiva de materiales blandos y duros contiene información valiosísima en forma de fósiles de organismos marinos y terrestres así como información referente a cambios climáticos, catástrofes naturales y extinciones que han sucedido en el planeta.

Lehenengoa Debatik gertu ageri den arroka-multzoa da (4. gunea), septarioen adibide bikainak dituen (7. irudia).

*Otros elementos geológicos de especial valor añadido (puntos 4 y 5)*

Se contemplan otros dos puntos ubicados en el término municipal de Deba, que debido a una especial singularidad deben ser considerados como puntos que merecen una especial protección.

El primero de ellos corresponde al intervalo de rocas que aflora en las proximidades de Deba (punto 4) que incluye excelentes ejemplos de septarias (Figura 7).

Septarioak jatorrizko sedimentuak trinkotzean eratzen diren nodulu moduko konkrezioak dira, eskuarki kaltzio-karbonatoaren metaketak eragindakoak. Ondorengo etapa batean, horrela eratutako noduluak uzkuritu egin daitezke, zartadura erradial eta zentrokideak garatuz, eta arrakalak beste fase mineral batzuek betetzen dira.

Duela zenbait hamarkadatik hona, Debako septarioen irtenunea ongi ezaguna dute bildumagileek eta geologiaren zaleek, eta, hain justu, maila oparoenetako bat Itziarko herrira igotzen den errepidean ageri da.

### 7. irudia. Deba aldeko septarioak

Las septarias son un tipo de concreciones a modo de nódulos que se forman durante la compactación de los sedimentos originales, generalmente por concentración de carbonato cálcico. En una etapa posterior, los nódulos así formados pueden experimentar contracción, acompañado del desarrollo de fracturas radiales y concéntricas, que se rellenan de otras fases minerales.

El afloramiento de septarias de Deba es bien conocido por coleccionistas y aficionados a la geología desde hace varias décadas, y uno de los niveles más abundantes aflora justamente en la carretera que asciende al municipio de Itziar.

### Figura 7. Septarias de la zona de Deba




Interés geológico handia duen beste elementua (5. gunea) Sakoneta muturra osatzen duten labarrak dira (8. irudia).

Irtenune horretan ezin konta ahala aztarna fosil aurki daiteke, batik bat flyscharen pausaleku diren hondo ozeanikoetan bizi ziren askotariko organismoen pausagune-markak, mugimenduen arrastoak eta elikadura-galeriak. Arrasto fosilak Deba eta Zumaia arteko gune askotan antzeman daitezkeen arren, Sakonetako muturra babestea bereziki interesgarria da iristen erraza delako eta hainbat motako aleen izugarritzko kopuruak daudelako.

El otro elemento de gran interés geológico (punto 5) corresponde a los acantilados que conforman la Punta Sakoneta (Figura 8).

En dicho afloramiento se reconocen multitud de “trazas fósiles”, que corresponden fundamentalmente a impresiones de reposo, huellas de desplazamiento y galerías de alimentación de diversos organismos que habitaban los fondos oceánicos donde se depositó el Flysch. A pesar de que se pueden reconocer trazas fósiles en muchos puntos entre Deba y Zumaia, la Punta Sakoneta tiene un especial interés de cara a establecer cierta protección por su fácil accesibilidad y porque concentra un número excepcional de ejemplares de diferente tipo.

8. irudia. Azterna fosilak Sakonetako Figura 8. Trazas fósiles de la Punta Sakoneta muturrean





## V. eranskina Lurralde-ereduan baliatutako erabilera- eta jarduera- tipologiak

### Ingurumenaren babesa

*Kontserbazioa.* Oraingo ezaugarriei eta egoerari eustea, eta esku-hartzerik ez egitea edo zientzia-edota kultura-arloko esku-hartzeak egitea soilik, gehien bertakotu diren kasuei dagokienez, edo oraingo erabilerarekin segitzea eta gizakiak eraginkortasunez esku hartzea garapen iraunkorra sustatuz, gainerako kasuei dagokienez.

*Ingurumena hobetzea.* Kultur tratamenduak dira, alderdia hasiera-hasierako egoerara edo egoera orekatuetara eramateko balio dutenak. Hobekuntza hori modu askotara egin daiteke, kasuan kasuko unitateek dituzten ezaugarri berezien arabera (mozketa selektiboak, artzaintza kontrolatua, garbiketa, landareak ezabatzeko lan selektiboak, izurrien zein gaixotasunen tratamendua, eta abar).

*Ikerketa.* Zientzia- edo teknika-arloko jarduerak dira, baliabide naturalak hobeto ezagutzera eta balioestera zuzendutakoak. Jarduerak deskriptiboak izan daitezke, eta paisaiako elementu berezien inbentarioa egiteko helburu soila eduki; edo, bestela, plangintza eta garapen jakin bati jarraitu ahal diote, landa-lanaren bidez egiaztatu nahi diren laneko hipotesietan oinarrituta.

## Anexo V. Tipologías de usos y actividades utilizados en el modelo territorial

### Protección ambiental

*Conservación.* Mantenimiento de las características y situación actual sin intervención humana o exclusivamente de carácter científico o cultural en los casos más naturalizados, o con continuidad del uso actual y participación activa del ser humano en una dinámica de desarrollo sostenible en el resto de los casos.

*Mejora ambiental.* Tratamientos de tipo cultural capaces de reconducir la zona de aplicación a su situación primigenia o a otros estados de equilibrio más valiosos. Esta mejora puede adoptar diferentes formas según la casuística particular de las unidades a que se asigne (restauración de hábitats, podas selectivas, pastoreo controlado, limpieza, eliminación selectiva de la vegetación, tratamiento de plagas y enfermedades, etc.)

*Investigación.* Actividades de naturaleza científica o técnica, orientadas a mejorar el conocimiento y valoración de los recursos naturales. Pueden ser de carácter descriptivo, encaminadas a la mera inventariación de elementos particulares, o bien obedecer a una planificación y desarrollo basados en la formulación de hipótesis de trabajo que se pretenden comprobar a partir de observaciones en campo.



### Aisia eta atsedena

*Aisia estentsiboa.* Aisialdia, turismoa, hezkuntza eta natur ingurunearen interpretazioa helburu duen erabilera eta gozamina da, ekipamendu berezirik behar ez duten jarduera bigunetan oinarritutakoa. Horien adibide dira ibilaldiak eta behaketa; izan ere, jarduera horiek oso eragin txikia dute ingurune fisikoan, oinezkoen joan-etorria besterik ez baitute ondorio, eta horretarako ez da azpiegitura edo egokitzapen berezirik behar, errekek zeharkatzeko, bidezidorrak hobetzeko nahiz mantentzeko, eta behatokiak egiteko obra txiki batzuk izan ezik; obra horiek, bestalde, kontu handiz egin behar dira, eta paisaia behar bezala integratu. Itsasertzari dagokionez, erabilera horiek izango dira paseatzea, egonean egotea, bainua hartzea, nabigatzea, itsasoratu eta lehorreratzea, eta inolako instalaziorik behar izanik gabe kostei buruzko legeria betez egiten diren antzeko beste batzuk.

*Aisia intentsiboa.* Aisialdia, turismoa, hezkuntza eta natur ingurunearen interpretazioa helburu duen erabilera eta gozamina da, baina aisialdi- edota harrera-ekipamendua behar duten jarduerak hartzen ditu barne; erabilerok gune bat egokitzea behar dute era askotako aisialdi-jarduerak egiteko, hala nola kanpinak, aparkalekuak, mahaiak, eserlekuak, barbakoak, iturriak, komunak, umeentzako jokoak, paperontziak, zaborrak erretzeko tokiak nahiz horrelakoetan ohikoak diren zerbitzuetarako eraikinen bat. Erabilera honetan sartuta daude, halaber, golf-zelaiak eta ibilgailu motordunen zirkulazioarekin zerikusia duten jarduerak, hala berariaz egokitutako zirkuitukoak nola interes orokorrekoak diren bideetakoak, bai antolatutako jardueratan bai eta norberak bere aldetik egindakoetan. Itsasertzeko eremuetan, erabilera intentsitate-, arriskugarritasun- eta errentagarritasun-irizpideez ezarri da, esaterako balizen bidez bainu-eremuak mugatuz, orotariko ontziak lehorreratzeko guneak paratuz edo hondartzetan denboraldiko zerbitzua eskainiz.

*Arrantza-jarduera.* Kirol-arrantza ur kontinentaletan eta itsaso zabalean, itsaski-bilketa eta olagarroen harrapaketa.

### Ocio y esparcimiento

*Recreo extensivo.* Uso y disfrute con fines de ocio, turismo, educación e interpretación del medio natural, mediante actividades blandas, sin equipamientos significativos. Típicamente se refiere a excursionismo y contemplación, poco incidentes en el medio físico, implicando el simple tránsito peatonal, que no refiere ningún tipo de infraestructura o acondicionamiento para su práctica, como no sean pequeñas obras (pasos sobre arroyos, tramos de sendas, miradores, etc.) que se presumen cuidadosas e integradas en el paisaje. En el caso de la ribera del mar, este uso se refiere a pasear, estar y bañarse, navegar, embarcar, varar, y otros usos similares que no requieren instalaciones de ningún tipo y que se realizan de acuerdo a la legislación de costas.

*Recreo intensivo.* Uso y disfrute con fines de ocio, turismo, educación e interpretación del medio natural, mediante equipamientos de ocio y/o acogida que implican la adaptación a un espacio localizado para actividades recreativas de distintos tipos, como campings, aparcamientos, instalaciones de mesas, bancos, barbacoas, fuentes, servicios sanitarios, juegos de niños, papeleras, crematorios de basuras o alguna edificación de servicio al uso. Se consideran así mismo integradas en este uso los campos de golf, las actividades ligadas a la circulación de vehículos a motor, tanto en circuitos especialmente adaptados, como por vías de interés general, en actividades organizadas o por libre. En el caso de las riberas de mar, se incluye su uso en condiciones de intensidad, peligrosidad y rentabilidad, por ejemplo adecuando zonas de baño mediante balizas, zonas de varada de artefactos flotantes o servicio de temporada de playas.

*Actividad piscícola.* Pesca deportiva en aguas continentales y marinas, marisqueo y captura de pulpos.



*Ehiza-jarduera.* Ehizan aritzea.

*Actividad cinegética.* Práctica de la caza.

*Ingurumen-hezkuntza.* Biztanleek natura osatzen duten elementuak eta prozesuak ezagutu, balioetsi eta errespetatu dituzten egiten diren zabalkundeko jarduerak dira. Jarduera hauek egiteko, hezkuntza formaleko mekanismoak eta baliabideak erabil daitezke. Azken helburua pertsonen banakako jokaerak aldatzea da, banakako jokaera hori orokor bihurtu eta ingurumenerako onuragarria izan dadin.

*Educación ambiental.* Actividades orientadas a difundir y extender entre la población actitudes de conocimiento, valoración y respeto hacia elementos y procesos naturales. Puede desarrollarse aprovechando mecanismos y recursos de educación formal. Su fin último es modificar comportamientos individuales de las personas, de manera que su generalización implique un beneficio ambiental.

### Oinarrizko baliabideen ustiapena

*Nekazaritza.* Lurra laborantzarako prestatzeko egin behar diren jarduerak dira, besteak beste, uztak biltzea, hautatzea eta sailkatzea, gero garraiatu, biltegitatu eta kontsumitu ahal izateko, eta, era berean, sail ureztatuak edo berotegiak daudenean, uztak dauden lekura ura eramatea eta probetxamendu handiagoa lortzea. Honakoak ere barne hartzen ditu: tresneria, lanabesak eta nekazaritzako produktuak gordetzeko eta biltegitatzeko instalazioak; nekazaritzako produktuak ekoiztea, ateratzea eta sailkatzea; salgai jartzeko produktuek behar duten lehen transformazioa egitea edo eskuz eraldatzea, eta sail ureztatuetan eta berotegietan beharrezkoak diren obrak egitea eta instalazioak jartzea. Nolanahi ere, eraikitako azalerak lotura estua eduki behar du ustiatzeak edo ustiatzeiek —elkar hartutako ekoizleak direnean— ekoizteko duten gaitasunarekin. Antolamendu-kategorien arabera, berariazko mugaketak ezarri ahal izango dira.

### Explotación de recursos primarios

*Agricultura.* Actividades destinadas a la preparación de la tierra para la obtención de cultivos, incluyendo operaciones de recolección, selección y clasificación de las cosechas dispuestas en condiciones de ser transportadas para su posterior almacenamiento o consumo, así como el aporte de agua y una mayor intensidad de aprovechamiento en el caso del regadío o de la agricultura de invernadero. Incluye las construcciones destinadas al almacenamiento y conservación de útiles, aperos de labranza y de productos agrarios; producción, extracción y transformación artesanal de los mismos, así como las obras e instalaciones necesarias para el regadío o para la agricultura de invernadero. En cualquier caso, la superficie construida deberá guardar relación con la capacidad productora de la explotación a la que sirve o de las explotaciones en el caso de productores asociados. Podrán establecerse limitaciones específicas en función de las diferentes categorías de ordenación.

*Berotegiak.* Instalazio iraunkor eta iristen errazak, landaketak sendotzeko edo babesteko itxiturak dituztenak; horietan landaketen zikloko fase batzuk edo fase guztiak egin ahal dira.

*Invernaderos.* Instalaciones permanentes, accesibles y con cerramiento para el forzado o protección de cultivos, en las que se pueden desarrollar todas o algunas de las fases del ciclo de los cultivos.

*Abeltzaintza.* Oro har, larreak eta bazka-laboreak babeste aldera eta artzaintzarako lurra prestatzean egiten diren jarduerak.

*Ganadería.* En general, actividades destinadas a la preparación de la tierra para la protección de pastos y cultivos forrajeros, así como para el pastoreo.



*Basogintza.* Zuhaitz-espezieen kudeaketa, landaketa edo ereintza barne hartzen ditu, helburu batik bat ekonomiko edo babesgarri batez. Erabilera honen baitan sartzen dira basoko zuhaitzietan aritzeko behar diren instalazioak nahiz baso-ustiapenari lotutako eraikinak.

Ingurumena hobetze aldera zuhaitz autoktonoak landatzeko jarduera baso-erabileratik kanpo utzi da.

*Nekazaritzako industriak.* Etengabeko estabulazio-erregimenean abeltzaintzako ekoizpen intentsiboetarako erabiltzen diren eraikinak, eta ustiategi bati zuzenean loturik ez dauden lehen transformazioko nekazaritzako elikagaien industriak.

*Arrantza profesionala.* Itsas arrantza komertziala, Itsaski-bilketa profesionala eta alga-bilketa profesionala.

*Erauzketa-jarduerak.* Mineralak erauzteko jarduerak, eta jarduera horiei lotutako jarduera osagarriak dira. Erabilera honek barne hartzen ditu alderdian dauden baliabide geologikoak erauzteko eta lehen tratamendua egiteko erabiltzen diren eraikin eta instalazioak. Harea dragatu eta lekuz aldatzeko lanak ere sartzen dira.

#### **Azpiegiturak**

*Garraiobideak.* Autobideak, autobiak, errepideak, trenbideak eta horien instalazio osagarriak. Halaber, kategoria honetan sartzen dira pertsonak edo salgaiak garraiatzen dituzten eta ingurune fisikoan antzeko eragina duten bestelako bide batzuk.

*Airetiko lineak.* Energia elektrikoa garraiatu edo banatzeko sareen multzoa eta bestelako helburua duten airetiko beste linea batzuk, eta, orobat, sarearen euskarri eta instalazio osagarriak.

*Uso forestal.* Incluye la gestión, plantación o siembra de especies arbóreas, con un objetivo principalmente económico o protector. Se consideran incluidas en este uso las instalaciones necesarias para el manejo de las masas así como las construcciones ligadas a la explotación forestal.

La plantación de arbolado autóctono con fines de mejora ambiental, queda fuera del uso forestal.

*Industrias agrarias.* Construcciones destinadas a producciones ganaderas de carácter intensivo en régimen de estabulación permanente, así como industrias agroalimentarias de primera transformación no ligadas directamente a una explotación.

*Pesca profesional.* Incluye la pesca marina con fines comerciales, el marisqueo profesional y la recogida de algas profesional.

*Actividades extractivas.* Actividades directa o indirectamente encaminadas a la extracción de los recursos minerales. Se incluyen las edificaciones e instalaciones destinadas a la extracción y primer tratamiento de los recursos geológicos sitios en la propia zona, así como las labores de prospección e investigación de los recursos mineros.

#### **Infraestructuras**

*Vías de transporte.* Incluye autopistas, autovías, carreteras, ferrocarriles, junto con sus instalaciones complementarias. Así mismo, esta categoría incorpora otros canales dedicados al transporte de personas o mercancías con similar impacto sobre el medio físico.

*Líneas de tendido aéreo.* Incluye el conjunto de redes de transporte o distribución de energía eléctrica y otras líneas de tendido aéreo y distinta finalidad junto a los soportes e instalaciones complementarias a la red.



*Lurpeko lineak.* Gasa, petrolioa eta haren deribatuak, ura, saneamendua, telekomunikazioak eta lurpeko gainerako azpiegituren sarea garraiatu edo banatzeko sareen multzoa nahiz lurpeko bestelako azpiegitura-sareak eta instalazio osagarriak.

*A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez linealak.* Instalazioen multzo handia sartzen da atal honetan, hala nola ibilgailuak kanpoan aparkatzeko eremu handiak, edateko uren araztegiak, urtegiak edo ur-biltegi handiak, energia elektrikoa sortzeko zentralak, 100 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera duten transformazioko estazioak, gasa hartzeko edo ekoizteko zentralak, araztegiak eta hondakin solidoak tratatzeko plantak, eta herri-onurakoak izanik ingurune fisikoan antzeko eragina duten bestelako instalazio guztiak.

*B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez linealak.* Instalazio hauek sartzen dira multzo honetan: irrati, telebista eta satelite bidezko komunikaziorako dorreak, antenak eta instalazioak nahiz faroak, irrati-faroak eta antzeko eragina duten bestelako komunikazio-instalazioak.

*Obra-hondakindegia eta hondakin solidoen zabortegeak.* Obra-hondakinak eta hiriko edo industriako hondakin solidoak botatzeko tokiak dira.

*Dauden azpiegiturak mantendu eta handitzea.* NBAP hau onartzeko unean zeuden azpiegiturak handitu, konpondu eta apaintzeko jarduerak barne hartzen ditu.

#### **Eraikuntza-erabilerak**

*Hirigintza-hazkundeak.* Lehendik zeuden herriguneetan oinarrituta ala ez egon litezkeen hirigintza-garapenak dira. Egoitzakoak, industrialak edo zerbitzuetakoak, beren izaerari dagozkion ekipamendu, hornidura eta erabilera osagarri guztiak barne har ditzakete, lehendik zeuden herriguneetan oinarrituta ala ez.

*Líneas subterráneas.* Incluye el conjunto de redes de transporte o distribución de gas, petróleo y productos derivados, aguas, saneamiento, telecomunicaciones y otras redes infraestructurales subterráneas así como las instalaciones complementarias.

*Instalaciones técnicas de servicios de carácter no lineal tipo A.* Incluye un conjunto amplio de instalaciones tales como grandes superficies de estacionamiento de vehículos al aire libre, plantas potabilizadoras y de tratamiento de agua, embalses o grandes depósitos de agua; centrales productoras de energía eléctrica; estaciones transformadoras de superficie superior a 100 metros cuadrados; centrales de captación o producción de gas; plantas depuradoras y de tratamientos de residuos sólidos y cualesquiera otras instalaciones de utilidad pública y similar impacto sobre el medio físico.

*Instalaciones técnicas de servicios de carácter no lineal tipo B.* Incluye un conjunto de instalaciones tales como torres, antenas y estaciones emisoras-receptoras de radio, televisión y comunicación vías satélite; faros, radiofaros y otras instalaciones de comunicación de similar impacto.

*Escombreras y vertederos de residuos sólidos.* Corresponde a los lugares destinados al vertido de escombros y de residuos sólidos urbanos e industriales.

*Mantenimiento y ampliación de infraestructuras existentes.* Incluye las actuaciones de ampliación, reparación y ornato de las infraestructuras existentes en el momento de aprobación del presente PORN.

#### **Usos edificatorios**

*Crecimientos urbanísticos.* Se trata de desarrollos urbanísticos apoyados o no en núcleos preexistentes. De carácter residencial, industrial o de servicios que pueden incorporar todo el conjunto de equipamientos, dotaciones y usos complementarios correspondientes a su propio carácter, apoyados o no en núcleos preexistentes.



*Etxebizitza bakana.* Oin berriko etxebizitza bakana da, eta nekazaritzako ustiategi bati atxikia egon daiteke ala ez.

*Lehendik zeuden nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiei atxikitako eraikinak eta bestelako instalazioak mantendu eta finkatzea.* NBAP hau onartzeko unean zeuden eraikinak mantendu eta finkatzeko jarduketak barne hartzen ditu, eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategien lehiakortasuna areagotze aldera beharrezkoak direla egiaztatu diren instalazioak.

*Herri-onurako eta gizarte-intereseko eraikin eta instalazioak.* Eman behar dituzten zerbitzuen izaera eta ezaugarriengatik ezinbestean landa-ingurunean kokatu behar diren komunitate-ekipamendu publiko zein pribatuarentzako eraikin eta instalazioak, beti ere aurrez herri-onurako edo gizarte-intereseko deklaratuak izan badira.

*Industria edo biltegiatze arriskutsuak.* Gai edo prozesu produktiboak biltegiatu eta garatzea, horien izaerari, ezaugarriari edo manipulatuakotako materialei erreparatuz arrisku larriak eragin ditzaketenean eta, beraz, lurzoru hiritar zein hiritargarri gisa kalifikatu ezin direnean.

*Vivienda aislada.* Se trata de construcción de vivienda aislada de nueva planta vinculada o no a explotación agraria.

*Mantenimiento y consolidación de edificaciones y otras instalaciones existentes, vinculadas a explotaciones agropecuarias.* Incluye acciones de mantenimiento y consolidación de las edificaciones existentes en el momento de aprobación del presente PORN, así como instalaciones que se demuestren necesarias para aumentar la competitividad de las explotaciones agropecuarias.

*Edificios e instalaciones de utilidad pública e interés social.* Edificaciones e instalaciones para equipamientos comunitarios públicos o privados que estén destinados a prestar servicios que por su naturaleza y características deben obligatoriamente emplazarse en medio rural, siempre que previamente hubieran sido declaradas de utilidad pública o interés social.

*Industrias o almacenamientos peligrosos.* Almacenamiento y desarrollo de sustancias y procesos productivos que por su naturaleza, características o materias manipuladas puedan originar riesgos graves que no permitan su inclusión como suelo urbano o urbanizable.



## VI. eranskina. NBAP hau garatzeko dokumentuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko 16/1994 Legeak ezartzen du Natur Parkeetarako berariazko dokumentu bat egongo dela –Erabilera eta Kudeaketa Plan Gidaria–, eremuaren erabilera eta kudeaketa xedatuko duena. Horrelako aurreikuspenik ez dago Biotopo Babestuetarako. Alabaina, eremu honetan bideratuko diren erabilera eta jarduera jakin batzuek duten garrantzia aintzat hartuz, beharrezkoa iritzi zaio NBAP hau garatuko duten dokumentuak taxutzeari.

### Erabilera Publikoko eta Irisgarritasuneko Plana

Gutxienez atal hauek barne hartuko ditu:

#### 1.- Abiapuntuko egoeraren analisisa:

- Dauden erabilera publikoko baliabideak.
- Erabilera publikoko eskaintza.
- Eskariaren analisisa (bisitarien zenbaketa eta karakterizazioa)
- Harrera-ahalmenaren balorazioa
- Inpaktuen hautemate eta aurreikuspena, eta dagozkien neurri zuzentzaileak
- Planifikazio-ereduaren baldintzatzaileen eta funtsezko puntuen analisisa

2.- Erabilera publikoaren eredu, espazioaren zonakatzearen eta espazioaren zein haren baitako zona jakinen harrera-ahalmenaren arabera.

3.- Espazioa garatuko duten programen eta ondoren programa horiek lantzeko jarraibideen identifikazioa Gutxienez agiri hauek landu beharko dira:

- Harrera-programa.
- Komunikazio eta Informazio Programa.
- Ingurumenaren arloko Interpretazio eta Hezkuntza Programa.

Oro har, agiriok honakoa barne hartuko dute:

## Anexo VI. Documentos para el desarrollo del presente PORN

La Ley 16/1994, de conservación de la Naturaleza del País Vasco establece que para los Parques Naturales existirá un documento específico que definirá el uso y gestión del espacio, el PRUG. Dicha previsión no existe para los Biotopos Protegidos. No obstante, se considera que dada la importancia que poseen determinados usos y actividades que se desarrollaran en este espacio, será necesario elaborar documentos específicos que desarrollen este PORN.

### Plan de uso público

Incluirá al menos los siguientes apartados:

#### 1.- Análisis de la situación de partida:

- Recursos de uso público disponibles
- Oferta de uso público
- Análisis de la demanda (cuantificación y caracterización de los visitantes)
- Valoración de la capacidad de acogida
- Detección y previsión de impactos y medidas correctoras asociadas
- Análisis de los condicionantes y puntos clave del modelo de planificación

2.- Modelo de uso público, de acuerdo con la zonificación del espacio y la capacidad de acogida del espacio o de las zonas concretas que se consideren dentro de este.

3.- Identificación de los programas que lo desarrollarán y las directrices para la elaboración posterior de dichos programas. Al menos habrán de diseñarse los siguientes:

- Programa de acogida.
- Programa de Comunicación e Información.
- Programa de Interpretación y Educación Ambiental.

Que incluirán en términos generales:



- |  |  |
|--|--|
| - Helburu orokorrak eta operatiboak  | - Objetivos globales y operativos  |
| - Jarduketak   | - Actuaciones  |
| - Kokapena   | - Localización   |
| - Hartzaileak  | - Destinatarios  |
| - Programak egikaritzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide material zein ekonomikoak | - Recursos humanos, materiales y económicos necesarios para su ejecución |
| - Gauzatze-kronograma  | - Cronograma de realización.   |

**Ehizaren Plan Teknikoa**

Gutxienez atal hauek barne hartuko ditu:

**1.- Biotopoaren barruko ehiza-jardueraren diagnostikoa:**

- Azter-eremuaren eta ehizako oinarriko baliabideen deskribapena
- Legezko xedapenak
- Ehiza-intereseko espezieak
- Zonakatzea

**2.- Aisialdi-erabilera Parkean****3.- Hautemandako arazoak**

- Natur baliabideen kontserbazioari buruzkoak
- Ehiza-probetxamenduaren eta gainerako erabilera publikoaren arteko talkari buruzkoak
- Ehiza-baliabideei buruzkoak

**4.- Kudeaketarako proposamenak. 3. atalean deskribatutako arazoak ahalik eta gehien murriztera bideratuak.****Plan técnico de caza**

Incluirá al menos los siguientes apartados:

**1.- Diagnóstico de la actividad cinegética en el Biotopo:**

- Descripción del área de estudio y de los recursos básicos cinegéticos
- Disposiciones legales.
- Especies de interés cinegético.
- Zonificación.

**2.- El uso recreativo en el Parque.****3.- Problemática detectada.**

- De conservación de recursos naturales.
- De conflictividad entre el aprovechamiento cinegético con el resto de uso público.
- De recursos cinegéticos.

**4.- Propuestas de gestión. Encaminadas a minimizar la problemática descrita en el apartado 3.**

**Laginketa geologikoen plana**

Deba-Zumaia itsasertzeko tarteko ondasun geologikoen kontrolak eta erregulazioak ondorengo dokumentua izan du abiapuntutzat: **“Deba-Zumaiako itsasertzeko tarteko biotopo babestua. Ondare geologikoen elementu nagusienak eta babesteko eta kudeatzeko proposamenak”**. Dokumentua UPV/EHUko Estratigrafia eta Paleontologia saileko ikertzaileek egin dute: Xabier Orue-Etxebarria dr., Juan Ignacio Baceta Dr., Estíbaliz Apellániz Dr., Gilen Bernaola Dr., Maite Martín Dr., eta Victoriano Pujalte Dr.

Atal honetan arrazoitutako zenbait proposamen agertzen dira balizko erregulazioaren inguruan, aplikagarria izan daitezkeenak aurreko ataletan proposatutako garrantziko elementu geologiko guztietara eta Deba-Zumaiako Biotopo babestuaren ondare geologikoen osotasunera. Proposamen horiek, bereziki, eremuaren interes zientifikoa kontuan hartuta ezartzen dira, eta etorkizunean proposatu daitekeen edozein ikerketa zientifikoren garapena kontrolatzeko.

Ikuspegi horretatik aipamen berezia izan behar du Itzurungo hondartzan Daniar-Selandiar eta Selandiar-Thañetiar estratotipoen tartean aplikatu beharreko trataerak. Munduko estratotipo horien izendapen formala lortzeko baldintzetako bat, horietan edozein ikerketa zientifiko burutzea eskuragarri egotea da. Hori dela eta, egoera hori antolamendu planean jaso behar da, baina horrek ez du esan nahi egindako jarduerak erregulatuta egon behar dutela eta une oro bermatu behar dutela elementu geologikoen zaintza (estratotipoen zaintza eta babesaren arduradun diren organismo edo zientifikoaren taldea izendatzearekin jaso beharreko alderdia).

Deba-Zumaia inguruko ikerketa geologiko guztiek helburu zientifikoak bilatzen dituzte soilik, irabazasmorik gabe egiten dira eta nagusiki hainbat organo ofizialek emandako proiektuen

**Plan de muestreos geológicos**

La presente propuesta de control y regulación del patrimonio geológico del tramo litoral entre Deba y Zumaia ha sido realizado a partir del documento **“Biotopo protegido del tramo litoral Deba-Zumaia. Principales elementos del patrimonio geológico y propuestas para su protección y gestión”**, elaborado por los investigadores del Departamento de Estratigrafía y Paleontología de la UPV-EHU Dr. Xabier Orue-Etxebarria, Dr. Juan Ignacio Baceta, Dra. Estíbaliz Apellániz, Dr. Gilen Bernaola, Dra. Maite Martín y Dr. Victoriano Pujalte.

En este apartado se incluyen algunas propuestas razonadas sobre la posible regulación que se podría aplicar a todos los elementos geológicos de relevancia propuestos en apartados anteriores y al conjunto del patrimonio geológico del Biotopo protegido Deba-Zumaia. Tales propuestas principalmente se establecen teniendo en cuenta el elevado interés científico de la zona en cuestión, y por tanto para que contemplen el desarrollo de forma controlada de cualquier estudio científico que se plantee en el futuro.

Bajo dicha perspectiva, merece una mención especial el tratamiento que se debe aplicar al intervalo que comprende los estratotipos del Daniense-Selandiense y Selandiense-Thañetiense en la playa de Itzurun. Uno de los requisitos para la declaración formal de tales estratotipos mundiales es que esté garantizada la accesibilidad para la realización de cualquier estudio científico sobre los mismos. Es por ello, que tal circunstancia debe quedar recogida en el plan de ordenación, sin que por otra parte implique que las actividades que se realicen puedan estar reguladas y garanticen en todo momento la conservación del elemento geológico (aspecto que también está recogido con la designación de un organismo o equipo de científicos encargados del cuidado y conservación de los estratotipos).

Todos los estudios geológicos sobre el área Deba-Zumaia persiguen objetivos exclusivamente científicos, se desarrollan sin ánimo de lucro y principalmente se financian con proyectos



bidez finantzatzen dira (zenbait unibertsitate, foru gobernu eta autonomoen ikerketa zerbitzua, elkarte zientifikoak, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, Europako Batzordea, etab.). Ikuspegi horretatik, jarduera horiek mugatzea edo galaraztea, osotasunean gizarte lana osatzen dutenak, babes berezia duen esparruan, ez da oso gomendagarria, ezin dugulako alde batera utzi ikerketa zientifikoa izan dela Deba-Zumaia tarteko ondare geologikoa behar bezala ezagutzeko eta baloratzeko motore nagusia. Horrek ez du esan nahi, bestalde, lan horiek eskudun agintari eta organismoek erregulatu eta kontrolatu dituztenik. Zentzu horretan, Deba-Zumaia biotopoaren inguruko edozein araudik, landa-lanak egiteko gutxienezko baldintza ezarri beharko lituzke. Biotopoaren inguruan ikerketak egin nahi dituzten zientifiko guztientzako baldintza horien ezarpenean zientifikoek egingo dituzten lanen, ekipo eta ikerlarien eta batz besterik iraupen denboraren berri eman beharko lukete. Hori zuzenean tartean dauden organismoek, udalak esaterako, txosten txikia bidalita egin daiteke. Horretarako, neurri erraz bat labarretarako sarbideen inguru garrantzitsuetan hainbat hizkuntzatan dauden kartelak jartzea da. Kartel horien bidez inguruaren babes maila azalduko dute eta ikerlariei gonbidatuko die bere kudeaketaren arduradun diren organismoekin harremanetan jartzera. Era berean, baldintza hori babestutako inguruaren informazioa duten hainbat web orritan sartu beharko litzateke.

concedidos por diversos organismos oficiales (servicios de investigación de diversas universidades, gobiernos autónomos y forales, asociaciones científicas, Ministerio de Educación y Ciencia, Comisión Europea, etc.). Bajo esta perspectiva, la limitación o prohibición de dichas actividades, que en conjunto constituyen una labor social, en el marco de un espacio que goza de protección específica resultaría poco aconsejable, ya que no podemos obviar que la investigación científica ha sido el principal motor para conocer y valorar justamente el enorme patrimonio geológico del área Deba-Zumaia. Todo ello no implica, sin embargo, que dichas labores se regulen y controlen por parte de las autoridades y organismos competentes. En este sentido, toda acción normativa que se establezca para el entorno del biotopo Deba-Zumaia debería determinar unas condiciones mínimas para la realización de los trabajos de campo. El establecimiento de dichas condiciones para todo el personal científico que pretenda realizar estudios en el entorno del biotopo básicamente debiera consistir en una información previa por parte de los mismos de las actividades a realizar, los equipos e investigadores implicados y el tiempo aproximado de duración. Ello podría realizarse mediante un pequeño informe a remitir a organismos directamente implicados como son los ayuntamientos. Para ello, una medida sencilla consistiría en la colocación en las principales zonas de acceso a los acantilados de carteles en varios idiomas informando del grado de protección del entorno e invitando a los investigadores a ponerse en contacto con los organismos encargados de su gestión. Asimismo, tal requerimiento debería incluirse en las diferentes páginas web con información relativa a la zona protegida.



Oro har, ikerketa geologikoan egiten diren laginketa mota guztiak eta aplikatzen diren metodoak ez dira erasotzaileak, edo baldin badira, oso gutxi, ez dutelako inolako isuririk edo arrokan suntsitze garrantzitsurik eragiten. Zentzu horretan, labarrean jasotzen diren arroka gogorren edo bigunen laginen kantitatea infinituki txikiagoa da egunero higadura naturalak, olatuek, haizeak, euriak edo bat-bateko tenperatura aldaketek edo hezetasun mailak mugitzen duten kantitatearekin alderatuz gero.

Ildo horretatik, aipamen berezia behar dute paleomagnetismorako edota makrofosilen aztarnak jasotzeko laginketak dituzten ikerketek. Paleomagnetismoko ikerketek, zenbaitetan, zilindro zentimetroko laginak zulatzearen ondorioz, labarraren paretan zulo handiak sortzen dituzte, bat ere estetikoak ez direnak. Gehienetan, arrokei eragiten dien higadurak, zulo horiek, hilabete gutxitan desagerrarazten ditu. Hala ere, horien eragina ikuspen edota interes handieneteko puntutan desagertarazi daiteke jasotze-lanekin bukatu ondoren material egokiarekin betetzen badituzte. Bestalde, makrofosilen laginketa, oso urria delako, nolabaiteko mugapen maila izan beharko luke. Horrela, interesatutako edozein ikerlarik horretarako baimen berezia izan beharko luke.

Onartutako neurri guztiek, ahal duten neurrian, fosilen aztarnak bereizterik gabe jasotzea ekidin beharko lukete. Egoera askotan, espezializatu gabeko bildumagile eta zaletuen ekintzek fosilen aztarnak galtzea sortu dute (adibide on gisa Deba inguruan dauden septaria maila dugu). Horiei guztiei esan beharko litzaieke aurkikuntzen berri eman behar dutela eta labarraren higaduraren ondorioz aurkitutako edozein aztarna eman ditzaten. Eta horiek, ikasgela didaktikoetan gorde edota dibulgaziozko bildumak egiteko erabil daitezke.

En conjunto, todos los tipos de muestreos que se realizan durante las investigaciones geológicas y los métodos con que se aplican son poco o nada agresivos con el medio natural, ya que no conllevan la generación de ningún vertido o la destrucción sustancial del afloramiento rocoso. En este sentido, es necesario indicar que la cantidad de muestras de roca dura o blanda que se recoge del acantilado es siempre infinitamente menor de la que es removida día a día por la erosión natural, como producto de la acción del oleaje, el viento, la lluvia y/o los bruscos cambios de temperatura o grado de humedad.

En esa línea, merecen una mención especial los estudios que impliquen muestreos para paleomagnetismo y/o la recogida de restos de microfósiles. Los estudios de paleomagnetismo suelen precisar en algunos casos la recogida mediante perforación de testigos cilíndricos centimétricos, que dejan en la pared del acantilado unos agujeros considerables como poco estéticos. En la mayoría de los casos, la erosión que afecta a las rocas a la base de los acantilados suele eliminar dichos agujeros en unos pocos meses. No obstante, su impacto en los puntos de mayor visibilidad y/o interés podría eliminarse totalmente mediante su relleno con un material apropiado al final de las labores de recogida. Por otro lado, el muestreo de microfósiles, por su relativa escasez, debería implicar cierto grado de limitación, de manera que cualquier investigador interesado deba obtener una autorización específica para ello.

Todas las medidas que se adopten deberían restringir al máximo posible la recogida indiscriminada de restos fósiles. En muchas ocasiones las acciones de coleccionistas y personas aficionadas no especializadas han producido la pérdida de restos fósiles y minerales de gran valor científico (un buen ejemplo de ello es el nivel de septarias en las proximidades de Deba). Más bien debería invitarse a todos ellos a que informen de nuevos hallazgos y a que participen proporcionando aquellos restos que hayan podido encontrar como producto de la erosión de los acantilados, los cuales pueden conservarse y utilizarse en aulas didácticas y/o en la confección de colecciones con carácter divulgativo.



### Jarraipen-plana

Beharrezkoa da Antolamendu Plan honetan jasotako xedapen eta jarduketan jarraipena egitea, bertan ezarritako helburuen betekizunari buruzko datuak biltze aldera. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Naturgune Babestuen Sarean aplikagarriak diren irizpideak edo metodologiak finkatzen baditu, horiek aintzat hartuko dira jarraipen-plan hau taxutzeko orduan. Horrelakorik ez badago, jarraian aurkezten direnak ezarriko dira.

Bi urtean behin gutxienez, gauzatutako proiektuak eta jarritako baliabideak nahiz ezarritako kontserbazio-neurriak berraztertuko ditu Organo Kudeatzaileak, helburuak eta emaitzak alderatzeko. Bestalde, hautemandako arazoak konpontzeko irtenbideak proposatuko dira eta hurrengo aldian zehar abiarazi beharreko proiektuak eta lanak planifikatuko dira.

Prozedura moduan, komenigarria litzateke denboraren joanean urtetik urtera alderatuko diren adierazleak hautatzea, horrela komunitate biologiko garantzitsuenen eta haien kontserbazio-egoeraren bilakaerari buruzko ondorioak atera ahal izateko.

- *Habitatak eta landaredia.* Gertatzen diren aldaketak, kasu honetan gutxienez itsasertzeko txilardiek zein txilardi atlantikoek, sega-larreek eta belardi-larreek, haltzadiak, hariztiak, erkameztiak eta artadiak hartutako azalera, estalduran, dibertsitatean edo egonkortasunean emandako aldaketak, birsorkuntza naturalaren ebaluaketa, egoera fitosanitaria eta erabilerek landaredian duten eragina.

- *Fauna.* Ornodun eta ornogabeen komunitate urtar nahiz lehorrekoen inbentarioa, horien aberastasuna eta ugaritasuna jasoz.

Arrantzatu daitekeen populazioen segimendua egitea beharrezkoa da, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzarekin koordinatuta egin beharko dena.

### Plan de seguimiento

Es necesario realizar un seguimiento de las disposiciones y actuaciones contempladas en este Plan de Ordenación, con el fin de recabar datos sobre el cumplimiento de los objetivos señalados en el mismo. En el caso de que el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco dicte criterios y metodologías aplicables en la Red de Espacios Naturales Protegidos, se adoptarán en el diseño de este plan de seguimiento. En tanto no se produzca esa circunstancia, se considerarán los contemplados a continuación.

Con periodicidad al menos bienal, el Órgano Gestor revisará los proyectos ejecutados y los recursos invertidos, así como las medidas de conservación implantadas, con el propósito de contrastar objetivos y resultados. Además, se propondrán soluciones para resolver los problemas detectados y se planificarán los proyectos y trabajos a emprender durante el siguiente periodo.

Como guía procedimental, se sugiere escoger indicadores cuya repetición en el tiempo y comparación interanual permita extraer conclusiones acerca de la evolución de las comunidades biológicas más relevantes y de su estado de conservación.

- *Hábitats y vegetación.* Variaciones que se produzcan, al menos en la superficie ocupada por las comunidades de brezales costeros y atlánticos, prados de siega y de diente, alisedas, robledales, quejigales y encinares, cambios en la cobertura, diversidad o estabilidad, evaluación de la regeneración natural, situación fitosanitaria e incidencia de los usos sobre la vegetación.

- *Fauna.* Inventario, riqueza y abundancia de las comunidades de vertebrados e invertebrados, tanto acuáticos como terrestres.

Resulta fundamental realizar un seguimiento de las poblaciones objeto de pesca, que deberá de realizarse en coordinación con la Dirección de Pesca y Acuicultura del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco.



- *Paisaia*. Ustekabeko, aldi baterako edo behin betiko aldaketak.
- *Urak*. Uren kalitatea abrasio-plataforman, kalitatea zaintzeko sareak eskaintako datuetan oinarrituta; sare horretan, eremu antolatuaen itsasertzeko aldean kokatutako bi estazio leudeke. Horrez gain, antolatutako esparruko ubideetako uren kalitatearen jarraipena.
- *Erabilera publikoa*. Eremura hurbiltzen den pertsona-kopuruari eta gunea erabiltzeko moduari buruzko datuak (zabalgunera etortzen diren bisitarien erregistroaren jarraipena), bisitaldiek izan dezaketen eragin kaltegarriaren analisia (kalteak landaredian edo lurzoruan, zaborra uztea...) eta araudiaren betekizuna.
- *Arrantza erabilera*. Inguruan diarduten ontzi profesionalen eta aisialdiko ontzien errolda.
- *Paisaje*. Alteraciones sobrevenidas, temporales o permanentes.
- *Aguas*. Calidad de aguas en la plataforma de abrasión, a partir de datos proporcionados por la red de vigilancia de calidad que incorporaría dos estaciones en el tramo costero incluido en el ámbito ordenado. Además, seguimiento de la calidad del agua de las regatas del ámbito ordenado.
- *Uso público*. Datos sobre afluencia y modo de utilización (seguimiento del registro de visitantes a la rasa), análisis de posibles afecciones (daños a la vegetación, al suelo, abandono de basuras...) y cumplimiento de la normativa.
- *Uso pesquero*. Censo de embarcaciones profesionales y recreativas que faenan en el lugar.

Antolamendu Plan hau onartu zenetik sei urte igaro direnean, ezinbestekoa da analisi kritiko bat egitea, eta horri buruzko txosten bat landuko da. Txosten horretan, Antolamendu Plana aldatzea komeni ote den aztertuko da, “*Indarraldia eta berrikuspenerako baldintzatzaileak*” atalean aurreikusitako gorabeheretako batzuk egiaztatzen badira. Era berean, Biotopo Babestu deklaraturako esparruan aldaketarik egin behar ote den aztertuko da, esaterako proposaturako antolamendu-esparruaren aldameneko lurrak sartzea.

Sei urteko epea ezartzen da baita ere NBAPen garapenerako Plan Teknikoak, eranskin honetan deskribatzen direnak, egiteko. Arlo bakoitzean eskumena duenak du idazteko erantzukizuna

Se procederá necesariamente al análisis crítico de este Plan de ordenación transcurridos seis años desde su aprobación, elaborándose un informe al respecto. Éste contemplará la conveniencia o no de modificar el Plan de ordenación, si se verificaran algunas de las circunstancias previstas en el apartado “*Vigencia y condicionantes de revisión*”. Se tendrán en cuenta igualmente posibles modificaciones del ámbito declarado biotopo protegido, por ejemplo con la inclusión de los terrenos adyacentes al ámbito de ordenación propuesto.

Asimismo, se define este mismo plazo de seis años para la elaboración de los Planes Técnicos de desarrollo del PORN que se describen a lo largo de este Anexo. La responsabilidad de su redacción recae en manos de las competencias en cada materia.

VII. eranskina. Argazki-erreportajea

Anexo VII. Reportaje fotográfico



**1. argazkia.** Kostaldearen ikuspegia Haitzanditik

**Foto 1.** Panorámica costera desde Haitzandi



**2. argazkia.** Santa Katalinako ermita

**Foto 2.** Ermita de Santa Catalina.



**3. argazkia.** Sakonetako marearteko zabalgunea

**Foto 3.** Rasa mareal de Sakoneta.



**4. argazkia.** Sakonetako hondartza

**Foto 4.** Playa de Sakoneta.



**5. argazkia.** Andika erreka

**Foto 5.** Andika erreka.



**6. argazkia.** San Telmo ermita

**Foto 6.** Templo de San Telmo.



**7. argazkia.** Itzurungo hondartza, Marianton muturra eta Urolaren bokalea **Foto 7.** Playa de Itzurun, punta Mariantón y desembocadura del Urola.




**8. argazkia.** Flyscharen eitea Sakonetako hondartzan **Foto 8.** Aspecto del *flysch* en playa de Sakoneta



**9. argazkia.** Portura heltzeko bidea

**Foto 9.** Acceso a Portu.



**10. argazkia.** Fosilen aztarnak

**Foto 10.** Huellas de fósiles.



**11. argazkia.** Uzkanga Berriko aisialdi-gunea

**Foto 11.**Área recreativa de Uzkangaberri.



**12. argazkia.** Elorriagako aisialdi-gunea **Foto 12.** Área recreativa de Elorriaga (Galarreta) (Galarreta)



**13. argazkia.** Sakonetako baserria eta **Foto 13.** Caserío y entorno de Sakoneta ingurumariak



**14. argazkia.** Uzgangako baserriak eta **Foto 14.** Caseríos y entorno de Uzkinga ingurumariak



**15. argazkia.** Arantza Behekoa baserria, gaur egun aurri-egoeran

**Foto 15.** Caserío Arantza Behekoa, actualmente en ruinas.



**16. argazkia.** Zumaiako landazabaleko zona

**Foto 16.** Zona de campiña de Zumaia